

Bilbon, 2003.eko ekainaren 27an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Andres Urrutia,
eta Piarres Xarriton euskaltzainak.

Ezin etorriak eta ahalak: Juan Mari Le-
kuona, ahala Jean Haritschelha-
rri; Beñat Oihartzabal, ahala Jean
Haritschelharri; Juan San Martin, ahala
Jose Antonio Arana-Martijari; I. Sara-
sola, ahala P. Salabururi; Patxi Zaba-
leta, ahala Andres Iñigori. Bilera osoan
egoterik ez duela eta, A. Urrutiak, al-
de egitean, bere ahala X. Kintanari utzi
dio.

Batzarra goizeko 10,05ean hasi
da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoit-
zako batzar aretoan, ezkerreko zuta-
bean ageri diren euskaltzainak bertan
direla.

1. Akta onartzea

Maiatzeko batzarraren akta oharrik gabe onartu da.

2. Eskuartekoak

2.1. R. de Rijk-en heriotza

Rudolf de Rijk nederlander euskalariaren heriotzaren berri eman da, 2003/6/15ean gertatua. Euskaltzaindiak haren alargunari, Virginia Chang de Rijk andreari doluminezko telegrama bidali dio. Ondoren, P. Salaburuk, alargunarekin izandako elkarrizketa azaldu eta hildakoaren azken nahia haren errautsak Euskal Herrian, Urkiolako parke naturalean barreiatuak izatea izan dela esan du, lagun arteko giroan. Helburu horretarako Virginia andrea uztailean Euskal Herrira etorriko da. Euskaltzaindiak omenaldi horretan parte hartzeko gogoia erakutsi du.

2.2. Patxi Salaberri Zaratiegiren unibertsitate-kargu berria

Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errektore berriak, Pedro Burillo jaunak, Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain urgazlea Hizkuntza plangintzarako arduradun izendatu duela jakinarazi da. Zorionak bidaltzea erabaki da.

2.3. EITB-rekiko hitzarmena

Jean Haritschelharrek Euskaltzaindiak ekainaren 13an, Bilboko egoitzan EITBrek lankidetzarako akordioa sinatu duela adierazi du. Testua euskaltzainen artean banatu da.

2.4. Euskaltzaindiaren zerbitzu eguneratuak

Ondoren J.L. Lizundiaren gutuna irakurri da, Euskaltzaindiaren zerbitzuen argibide eta e-mail eguneratuekin.

2.5. Kudeaketa eta Idazkariordetzaren arteko banaketa-proposamena

Era berean, bere kargu uztea dela eta, J.L. Lizundiak proposamen bat aurkeztu du orain arte berak zeramatzan kudeaketa eta idazkariordetza banatzea gomendatuz. Zuzendaritzak bezperan onarturiko testu hori euskaltzainen artean banatu da. Euskaltzainburuak formula hau 2004. urtearen amaierara arte, oraingo zuzendaritzak bere agintaldia bukatu arte, alegia, baliagarria dela uste du. Halere, P. Salaburuk ez deritzo ondo, eta Euskaltzaindian kanpotik helduriko jende berria behar dela uste du. Arana-Martijak kudeatzaile-idazkariorde arteko koordinatzaile baten premia ere dakusa, baina oraingoz euskaltzainburuaren bidez gauzak hurrengo zuzendaritzari uztea pentsatzen du. P. Salaburuk gogoratu du Jauriaritzak egindako auditorian Euskaltzaindiak gerente bat behar duela eta hori kontuan eduki behar litzatekeela hurrengo birmoldaketarako.

2.6. *Euskal Herria* izenari buruzko argitasunak

M^a Angeles Iztueta Hezkuntza Sailburuak Unai Ziarreta Bilbaoren bidez Euskaltzaindiari egindako eskaria irakurri da, *Euskal Herria* izenari buruzko azterketa eta txostena eskatuz. Onomastika batzordeari hori lehenbailehen egiteko ardura eman zaio.

3. J. M. Satrustegi euskaltzainaren hutsunerako euskaltzaina hautatzea

J. M. Satrustegi euskaltzainaren heriotzak Akademian sorturiko hutsunea betetzeko, arategiari agintzen duen epean kandidatu bakarra aurkeztu da. Hautatzeko egin beharreko botazioa eginda, emaitza hauek izan dira: 19 boto alde eta 2 zuri. Hortaz, J.L. Lizundia Askondo jauna euskaltzain oso izendaturik gelditu da. Berari horren berri eman ondoren, batzar aretora etorri da, eta euskaltzainburuak akademiko guztien izenean zorianak eman dizkio.

3. Hizkuntza arauak.

3.1. Onomastika.

Batzar aretora Mikel Gorrotxategi, Onomastika Saileko idazkaria, sarturik, «Nafarroa Behereko herri izendegia (Amikuze)» zerrendari eginiko oharrak aztertu dira. Zubereraren ü fonema Zuberoatik kanpoko herrietan ere grafikoki adieraztea komeni den ala ez, eztabaida luzea izan da, hor, J.L. Davant, Tx. Peillen, P. Salaburu, A. Eguzkitza, P. Xarriton, A. Iñigo, M. Gorrotxategi eta X. Kintana arituz. Azkenean, ondoko forma hauek onartu dira: *Amikuze (amizkutar)*, *Atzümarta (altzümartar)*, *Amendüze (amendüztar)*, *Garrüze (garrüztar)* eta *Lüküze (lüküztar)*, eskualde mailan *Amiküze* aldaera ere erabil daitekeela gaineratuz.

Ondoren, Onomastika batzordearen ordezkariak «Aita Santuen zerrenda» aurkeztu dute, euskaltzainek oharrak uztaileko bidal dituzaten.

3.2. Hizkuntza Arauak: Hiztegi Batua

P. Salabururen zuzendaritzapean, **arbiska-arlotetze** zerrendako hitzak eta hauei egindako oharrik aztertzen segitu da, **ardi**-tik hasita.

* * *

Bilera 1,30etan eten da, eta euskaltzainak beheko solairuko hitzaldi aretora jaitsi dira. Han Euskaltzaindian lanean arituriko 34 urteen oroigarri, Jean Haritschelharrek pergamino bat eman dio J.L. Lizundiari, izkribu honekin: «Euskaltzaindiak Jose Luis Lizundia Askondo lankide jaun leialari, erakunde honetan 1969-2003 urteetan egindako lan baliotsuaren esker ona adierazteko pergamino hau eskaintzen dio. Bilbon, 2003.eko ekainaren 27an», Euskaltzainburuak eta Idazkariak sinatua.

Ondoren, Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako Zuzendariak katalogatu berri duten *Euskera* agerkariaren berri eman die euskaltzainei, Internet-en *Euskera*-ko lanak eta egileak bilatzeko modua ere azaldu eta haien galderei ere erantzunez.

Azkenik, Luis Badosa jaunak, margolari eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko irakasleak, berak egindako koadro bat eskaini dio oparitzat Euskaltzaindiari, eta antze-lan horren esangura eta sinbolismoa azaltzean obra hau Akademiak eduki beharko lukeen arte-bilduma osatzeko lagungarri izatea espero duela esan du. Euskaltzainburuak, eskerrak eman ondoren, liburu batzuk eskaini dizkio.

Arratsaldean, bazkalondoan, 4,30etan goizeko lexiko-lanarekin lanean segitu da. Goizeko zerrendari jarraikiz, **ariel**-erainoko hitzak aztertu eta onartu dira.

6. Osasun-arloko zerbitzu eta leku batzuen hitz zerrenda

Osasun-arloko zenbait zerbitzu eta leku-izendapen izeneko zerrenda, A. Eguzkitzak prestatua, banatu da euskaltzainen artean. Joan den abenduan, Laudion egin zen osoko bilkuran osasun arloko hitzei buruzko eztabaida izan zen, eta A. Eguzkitzak arlo horretako hitzak bilduko zituela adierazi zuen, eta oraingoan emaitza horren berri eman die euskaltzainei.

Bukaeran Rikardo Badiola Argitalpen eragileak honako liburu hauek banatu ditu euskaltzainen artean: *Euskera* 2002, 2; BBK-Euskaltzaindia sariak 2002: Toribio Alzaga teatro saria, Mikel Zarate saio saria eta Txomin Agirre eleberreri saria.

Batzarra arratsaldeko 6,15ean amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria